



BALIARRAINGO UDALA
(GIPUZKOA)

2016eko APIRILAK 19EKO BILKURAKO AKTA

Bilkura: Ohikoa

Eguna: 2016/04/19

Ordua: 19.00etan

Deialdia: Lehenengoa

Bilduak:

Olatz Iriarte Argaya. Alkatea

Ane Garmendia Gorostidi. Zinegotzia

Jokin Garmendia Etxeberria. Zinegotzia

Luis Lopez Garcia Uceda. Zinegotzia

Mikel Telleria Irastorza. Zinegotzia ez da etorri kanpoan aurkitzen delako.

Idazkaria: Nekane Lopetegi

GAI ZERRENDA

- 1- 2016-03-15 Bilkurako akta onartzea hala balegokio.
- 2- Areto Futbol elkartearen laguntza eskaera aztertu.
- 3- Herri txiki, altxor handi manifestua Igeldoko itxas aurre elkarteak luzatutako aztertu eta dagokiona erabakitzea.
- 4- 2015ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa eta kontu Orokorra onartzea.
- 5- Josu Albisuren alegazioa aztertu eta dagokiona erabakitzea.
- 6- Juan Zubeldiaren baimen eskaera onartzea hala balegokio.
- 7- Alkatearen dekretuen berri ematea.
- 8- 2016ko ibilgailuen haserako errolda onartzea.
- 9- Hileko ordainketen zerrenda onartzea.
- 10.-Galderak eta eskaerak.



1.-2016-03-15EKO BILKURAKO AKTA ONARTZEA HALA BALEGOKIO.

Alkateak bilerari hasera eman ondoren, 2016-03-15ko Bilkurako aktaren izenburuak irakurri eta komentatu dira. Hainbat zuzenketa egin ostean onartutzat eman da.

2.-ARETO FUTBOL ELKARTEAREN LAGUNTZA ESKAERA AZTERTU.

Gipuzkoako herri txikietako Areta Futbol elkarteko idazkariak , elkartean futboleak jokatzen duten 200 gazteen ametsak betetzeko 100eurotako laguntza eskatzen du.

Eskaera honen inguruan, orain arte dagoen laguntzen araudia aztertzea proposatu da .

Futbol taldearen izenean egin den eskaeran, Baliarraingo taldea dagoela eta, honako iritzi hauek mahairatu dira:

.-Ikasturte honetan, futbol talde osoa Baliarraingo hurrekin osatua dagoela eta herri txikien arteko sailkapenean ere Baliarrain izenarekin jokatzen dutela.

.-Herriko hurrei taldeak sustatzeko eskaera egiten zaiela eta orain taldea dagoenean laguntzea merezi dutela.

Guzti honengatik, AHO BATEZ ERABAKI DUTE.

1.-Gipuzkoako Futbol talde elkarteko eskaera onartzea eta 100 euroko laguntza ematea.

3.-HERRI TXIKI, ALTXOR HANDI MANIFESTUA IGELDOKO ITXAS AURRE ELKARTEAK LUZATUTAKO AZTERTU ETA DAGOKIONA ERABAKITZEA.

Alkateak, HERRI TXIKI, ALTXOR HANDI manifestua mahairatu du aztertu eta dagokiona erabakitzeko. Manifestuak honela dio hitzez hitz:

HERRI TXIKI, ALTXOR HANDI

Badira Gipuzkoan 2.500 biztanletik behera dituzten 48 udalerrri. Egunez egun, bere bidea egin, bere etorkizuna erabaki eta pausoz pauso eraikitzen dutenak.

Baina badira ere, udalerrri izan nahi eta ezin duten herriak ere (Itziar, Igeldo, ...). Guri ez digute 48 udalerrriek egiten ari diren bide berbera egiten uzten. Globaltasunaren aro



honetan txikiegiak omen gara eta udalerrri bihurtzea ez omen da gauza ona ez guretzat ez Gipuzkoarentzat ere. Korrante orokorraren kontrakoa omen da. Eta hartan sakontzen du joera nagusiak eta baita agintariak ere, udalerrriak batuaziz, udalerrri baino entitate txikiagoak desagerraraziz eta berrien sorkuntza debekatuz. Nork erabaki du handia izatea ona dela eta txikia izatea kaltegarria?. Oker bizi ote dira 48 udalerrrietako biztanleak “txikiak” direlako? Nahiago ote dute hauek halabeharrez batu eta handiago baten partaide izan?

Igeldoarrok, Gipuzkoako hiri handienaren parte izatea zer den ondo dakigu. Donostiako parte izatera behartzen gaituzte gure hitza entzun gabe. Eta guk, handi horren parte izanik, ez dugu gure herriarentzat etorkizunik ikusten. Izan ere, udalerrri izaten utzi ez baina egunerokotasunean beraientzat garrantzi gutxiko periferia gara. Gure beharrak azkenak dira, udaleko sosak ez dira sekulan iristen, gure iritzia eta eskaerak ez dira kontuan hartzen. Betebeharrez ari garenean, ordea, hori, bai, handi horren hiritarrek dituzten betebehar guztiak ditugu (zergak, araudiak...), multzo handiaren behar eta nahietara erantzutera mugatu behar garen eremu bilakatu gaituzte.

Badakigu zuetako bakoitzak Gipuzkoan duen garrantzia eta zuen herritarrentzat udalerrri izateak suposatu diena. Igeldotarrok zuen bide berbera egitea, udalerrri izatearena, hautatu genuen. Guri, ordea, ez digute eskubide hori onartu nahi 20 urteko prozesua eta gero. Itsasoko adibideak, berriz, gauzak oso bestelakoak izan daitezkeela frogatzen du. Urtebetean eta 200 biztanle baino gutxiago izanda, administrazioek udalerrri izateko eskaera babestea lortu dute. Pozteen gara, administrazioek kasu honetan izan duten jokabidea baita, hain zuzen ere, nagusitzea eskatzen duguna.

Globaltasuna eta hainbeste miresten den handitasunaren aurrean, guk, denon “txikitasuna” aldarrikatu nahi dugu. Asko baita emateko duguna. Asko baita dagoeneko ematen duguna: ohitura zaharren, gure hizkuntzaren eta historiaren gordeleku, gizabanako harreman estuen adibide, herriaren kudeaketa hurbil eta zuzenago baten gune aproposa, gure ama luraren zaindari, lehen sektorearen babesleku,..... Ez dugu “handitasun” horren nagusitasunean sinisten, gure errealitatea maite eta aldarrikatu nahi dugu, igeldotarren hitza errespetatua izan dadila exijitzen dugu.

Horregatik gatozkizue zuen elkartasuna eskatzera igeldotarren alde eta herri/udalerrri “txikien” alde.

Eta elkartasun hori adierazteko honakoa eskatu nahi dizuegu: idatzi hau babestu eta apirilaren 23an (Bulebarrean 17:30-ean) Igeldori udalerrri izateko egin duen hautua errespetatua izan dadin eskatzeko antolatu dugun manifestaldira zuen udalerrrietako herritarrei deialdia zabaltzea eta, ahal izanez gero, ordezkari bat bidaltzea.

Doakizuela, aldez aurretik, gure eskerrik beroenak elkartasun dei honi arreta jartzeagatik. Garai zaharretan bezala, elkarlana eta elkartasuna izan dadila gure harremanen oinarria.

Igeldon, 2016-ko martxoan.

IGELDOKO ITXAS AURRE ELKARTEA

Tlf: 943 31 30 30



Emaila: itxasaurre89@gmail.com

Mahakideek ERABAKI DUTE :

1.-manifestuari osotasunean onarpena ematea .

4.-2015EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA ETA KONTU OROKORRA ONARTZEA.

2015 ekitaldiko aurrekontuaren likidazio eta kontu orokorraren espedienteak mahairatu dira eta beraien laburpenak eskuratu dira .
Idazkariak honako txostena luzatu du :

TXOSTENA

Udalbatzarrak 2015eko urtarrilaren 20ean (e)an hartutako erabakiaren bidez onartu zuen Udal honen 2015(e)ko aurrekontua. Aurrekontu horrek jasotako ordainketa kredituen zenbatekoa, eta ekitaldian zehar onartutako aldatetena, ondoko taulan xehetzen da:

Hasierako aurrekontua:.....	244.304,50
Kreditu gaikuntzak:.....	0,00
Kreditu	0,00
Baliogabetzearen ziozko bajak:.....	0,00
Kreditu	68.088,90
	<hr/>
Behin betiko	312.393,40
aurrekontua:.....	

Aurrekontu horren exekuzioan ondorengo hauek azpimarratu behar dira:

EREIN ETA LURRALDE ANTOLAKETA BIDEZ EGIN DIREN LANAK AURREKONTUAN ALDAKETA SORTU DUTE .

1.- NORAINO GAUZATU DEN GASTUEN AURREKONTUA

Goian adierazi diren ordainketa kredituen kargura onartutako obligazioak ondokoak dira, portzentajetan eta kapituluka, aurtengo ekitaldian nahiz aurreko urtekoan:



KAPITULUA	2015 EKITALDIA			2014 EKITALDIA		
	BEHIN BETIKO AURREKONTUA	OBLIGAZIO ONARTUAK	%	BEHIN-BETIKO AURREKONTUA	OBLIGAZIO ONARTUAK	%
1.- Langileria gastuak	83.980,00	82.361,37	98,07	96.676,60	96.676,60	100,00
2.- Ond. arrunten eta zerb.en gastuak	48.150,00	43.693,45	90,74	58.999,05	58.999,05	100,00
3.- Gastu finantzarioak	500,00	80,29	16,06	1.300,00	258,09	19,85
4.- Transferentzia arruntak	39.647,39	33.623,17	84,81	26.691,92	21.637,37	81,06
6.- Inbertsio errealak	118.751,63	115.162,26	96,98	122.081,32	112.555,39	92,20
7.- Kapital transferentziak	2.600,00	1.371,52	52,75	2.600,00	1.379,25	53,05
8.- Aktibo finantzarioak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
9.- Pasibo finantzarioak	18.764,38	18.764,38	100,00	20.000,00	18.654,44	93,27
GUZTIRA	312.393,40	295.056,44	94,45	328.348,89	310.160,19	94,46

Bereziki, gauzatutakoaren portzentajeak guztizkoaren aldean daukan garrantzi kuantitatiboa dela-eta, ondoko partidak nabarmendu behar dira: EZER BEREZIRIK EZ DAGO .

6. kapituluak (Inbertsio errealak) honako gauzatze portzentajea agertzen du, faseen arabera, aurtengo ekitaldian nahiz aurrekoan:

GAUZATZE FASEA	2015 EKITALDIA		2014 EKITALDIA	
	ZENBATEKOA EUROTAN	KREDITUEN GUZTIZKOAREN %	ZENBATEKOA EUROTAN	KREDITUEN GUZTIZKOAREN %
Obligazio onartuak (O fasea)	115.162,26	96,98	112.555,39	92,20
Gastu erabiliak (D fasea)	115.162,26	96,98	112.555,39	92,20
Gastu baimenduak (A fasea)	115.162,26	96,98	112.555,39	92,20
Kredituak, guztira	118.751,63	100,00	122.081,32	100,00

Beraz, oro har esan daiteke gauzatze portzentajea altua izan dela.

2.- NORAINO BURUTU DIREN OBLIGAZIO ONARTUAK

Aurrekontuko obligazio onartuengatik ordainketek (beraz, itxitako ekitaldietakoak sartu gabe) ondoko portzentajeak agertzen dituzte kapituluka, bai aurtengo ekitaldian bai aurrekoan ere:



KAPITULUA	2015 EKITALDIA			2014 EKITALDIA		
	OBLIGAZIO ONARTUAK	ORDAINKETA LIKIDOAK	%	OBLIGAZIO ONARTUAK	ORDAINKETA LIKIDOAK	%
1.- Langileria gastuak	82.361,37	81.488,55	98,94	96.676,60	96.676,60	100,00
2.- Ond. arruntan eta zerb.en gastuak	43.693,45	43.646,05	99,89	58.999,05	58.999,05	100,00
3.- Gastu finantzarioak	80,29	80,29	100,00	258,09	258,09	100,00
4.- Transferentzia arruntak	33.623,17	33.623,17	100,00	21.637,37	20.335,52	93,98
6.- Inbertsio errealak	115.162,26	111.290,25	96,64	112.555,39	75.474,94	67,06
7.- Kapital transferentziak	1.371,52	1.371,52	100,00	1.379,25	1.379,25	100,00
8.- Aktibo finantzarioak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
9.- Pasibo finantzarioak	18.764,38	18.764,38	100,00	18.654,44	18.654,44	100,00
GUZTIRA	295.056,44	290.264,21	98,38	310.160,19	271.777,89	87,63

Bereziki, beren garrantzi kuantitatiboa ikusirik, ondorengo partidak nabarmentzekoak dira:

Ez dago ezer nabarmenik .

Beraz, oro har esan daiteke aurrekontuaren gauzatze portzentajea oso handia izan dela.

3.- NORAINO GAUZATU DEN SARREREN AURREKONTUA

Ondoko taulan jaso dira sarreraren aurreikuspenetan izan diren desbiderapenak, hau da, behin betiko aurreikuspenen eta benetan likidatutako eskubideen arteko aldea, kapituluka, azken bi ekitaldietan, bai balio absolutuetan bai portzentajetan:

KAPITULUA	2015 EKITALDIA			2014 EKITALDIA		
	BEHIN BETIKO AURREIKUSPENAK	ESKUBIDE ONARTUAK	%	BEHIN BETIKO AURREIKUSPENAK	ESKUBIDE ONARTUAK	%
1.- Zuzeneko zergak	21.900,00	19.882,57	90,79	23.200,00	22.318,73	96,20
2.- Zeharkako zergak	2.000,00	591,98	29,60	2.000,00	403,00	20,15
3.- Tasak eta bestelako sarrerak	7.610,00	21.916,50	288,00	7.300,00	8.177,59	112,02
4.- Transferentzia arruntak	180.151,00	196.308,19	108,97	187.701,29	194.338,15	103,54
5.- Ondare sarrerak	6.900,00	13.164,74	190,79	10.452,00	5.903,95	56,49
6.- Inb. errealak besterentzea	0,00	3.350,49	3.350,49	0,00	1.089,00	1.089,00
7.- Kapital transferentziak	51.133,92	58.131,02	113,68	97.695,60	102.782,37	105,21
8.- Aktibo finantzarioak	42.698,48	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
9.- Pasibo finantzarioak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
GUZTIRA	312.393,40	313.345,49	100,30	328.348,89	335.012,79	102,03

Bereziki, gauzatze portzentajeak guztizkoaren aldean daukan garrantzi kuantitatiboa ikusirik, ondoko kontzeptuak nabarmentzekoak dira:

EZER NABARMENTZEKORIK EZ

Beraz, oro har esan daiteke exekuzioaren altua izan dela.



4.- NORAINO BURUTU DIREN ESKUBIDE ONARTUAK

Aurrekontuko eskubide onartuengatik egindako kobrantzek (beraz, itxitako ekitaldietakoak sartu gabe) ondoko portzentajeak agertu dituzte kapituluka, aurtengo ekitaldian nahiz iazkoan:

KAPITULUA	2015 EKITALDIA			2014 EKITALDIA		
	ESKUBIDE ONARTUAK	KOBRU LIKIDOAK	%	ESKUBIDE ONARTUAK	KOBRU LIKIDOAK	%
1.- Zuzeneko zergak	19.882,57	19.684,44	99,00	22.318,73	22.318,73	100,00
2.- Zeharkako zergak	591,98	591,98	100,00	403,00	403,00	100,00
3.- Tasak eta bestelako sarrerak	21.916,50	20.607,14	94,03	8.177,59	8.177,59	100,00
4.- Transferentzia arruntak	196.308,19	192.744,60	98,18	194.338,15	192.782,87	99,20
5.- Ondare sarrerak	13.164,74	13.164,74	100,00	5.903,95	5.903,95	100,00
6.- Inb. errealak besterentzea	3.350,49	1.868,09	55,76	1.089,00	1.089,00	100,00
7.- Kapital transferentziak	58.131,02	28.934,50	49,77	102.782,37	45.865,33	44,62
8.- Aktibo finantzarioak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
9.- Pasibo finantzarioak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
GUZTIRA	313.345,49	277.595,49	88,59	335.012,79	276.540,47	82,55

Bereziki, beren garrantzi kuantitatiboa ikusirik, ondoko kontzeptuak nabarmentzekoak dira:

EZER BEREZIRIK EZ.

Beraz, oro har esan daiteke aurrekontuaren gauzatze portzentajea altua izan dela.

5.- NORAINO BURUTU DIREN ITXITAKO EKITALDIETAN ORDAINDU GABEKO SALDOAK

Itxitako ekitaldietan ordaindu gabeko saldoetatik honako hauek ordaindu dira aurtengo ekitaldian, zorren sorburu-urtearen arabera:

SORBURU URTEA	HASIER.SALDOA URTARR. 1EAN	DEUSEZTAPEN BAJAK	ORDAINKETA LIKIDOAK	ORDAINTZEKE BUKAER. SALD.	ORDAINKETA PORTZENTAJE A
2012	0,00	-0,00	0,00	0,00	0,00
2013	0,00	-0,00	0,00	0,00	0,00
2014	38.382,30	937,75	37.444,55	0,00	97,56
GUZTIRA	38.382,30	937,75	37.444,55	0,00	97,56

Abenduaren 31n ordaindu gabe zeuden saldoen artean, garrantzi kuantitatiboa dutenez, ondoko partidak azpimarratu behar dira:

EZER NABARMENIK EZ

6.- NORAINO BURUTU DIREN ITXITAKO EKITALDIETAN KOBRATU GABEKO SALDOAK

Itxitako ekitaldietan kobratu gabeko saldoetatik, honakoak kobratu dira aurtengo ekitaldian, zorren sorburu-urtearen arabera:



SORBURU URTEA	HASIER.SALDOA URTARR. 1EAN	DEUSEZTAPEN BAJAK	KOBRANTZA LIKIDOAK	KOBRATZEKE BUKAER.SALD.	KOBRANTZA-PORTZENTAJE A
2012	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
2013	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
2014	58.472,32	0,00	58.472,32	0,00	100,00
GUZTIRA	58.472,32	0,00	58.472,32	0,00	100,00

Abenduaren 31n kobratu gabe zeuden saldoen artean, garrantzi kuantitatiboa dutenez, ondoko partidak azpimarratu behar dira: EZER NABARMENIK EZ

7.- DIRUZAINZAKO GERAKINAREN BIDEZ FINANTZATUTAKO OBLIGAZIOAK

Aurtengo ekitaldiaren barruan hainbat kreditu aldaketa onartu da, lehen adierazitakoaren arabera. Aldaketa horiek finantzatzeko, besteak beste, iaztik zetorren gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina erabili da. Beraz, gastuen aurrekontuko kredituak ekitaldi bereko baliabideen bitartez finantzatu dira zati batean, eta aurreko ekitaldietakoen bitartez, beste zati batean. Aurrekontu emaitza zehazterakoan xehetasun hori kontuan hartu beharko da, hala jasotzen baitu 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 48.4 artikuluan.

Aurtengo ekitaldiko gastuen aurrekontuan, ondoko hauek dira gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinaren bitartez finantzatutako kredituak eta abenduaren 31n lortutako gauzatze maila:

PARTIDA	AZALPENA	B.BET.KRED. DGrekin FINAN	OBL.ONART. DGrekin FINAN.
0000.421.162.20.02	TOLOSALD MANKOMUNIT. HONDAKIN TRATAMENTU	894,81	894,81
0000.421.431.40.01	MANKOMUN. ETA KONTSORTZ. TOL. HILTEGI MA	20,56	20,56
0000.422.920.00.01	TOLOMENDI. IKT DINAMIZAZIOA	934,67	934,67
0000.422.942.00.01	BESTE ENTITATEEI: TOLOSALDEA GARATZEN	197,22	197,22
0000.601.134.00.02	IGOGAILUA	596,17	596,17
0000.601.162.20.04	TXERRIENTZAKO ITXITURA	6.544,16	6.544,16
0000.601.342.00.01	HAURRENTZAKO PORTERIAK	1.119,17	1.119,17
0000.601.454.00.03	SAN JUAN BIDEKO HARRI LUBETA ETA ASFALT	25.325,73	25.325,73
0000.601.454.00.05	SAN BELARDIKO BIDEA	1.563,59	1.563,59
0000.601.454.00.06	AZPISALETXEKO BIDEA	510,47	510,47
0000.601.920.00.01	WIFI GUNE PUBLIKOA JARTZEA	542,37	542,37
0000.601.920.00.02	web orrialdearen diseinua	2.531,27	1.531,42
0000.601.933.00.02	OSTATUKO INBERTSIOA	1.605,21	1.605,21
0000.933.011.00.01	EPE LUZER. MAILEGUEN AMORTIZAZ.	313,00	313,00
	GUZTIRA	42.698,40	41.698,55



8.- DESBIDERAPEN FINANTZARIOAK, FINANTZAKETA LOTUA DUTEN GASTUETAN

Aurtengo ekitaldi ekonomikoan, apartatu honetan zerrendatzen diren gastu-proiektuak gauzatu dira, ondoko ezaugarriak dituztenak denak ere:

- Berariazko finantzaketa dute gastu horiek, gauzatzeari espresuki lotuta.
- Urte anitzeko eragiketak dira, hau da, obligazio onartuak edota finantzaketari lotutako eskubideak ekitaldi ekonomiko batean baino gehiagotan likidatuko dira, eta ekitaldi horiei egotziko zaizkie.

Gastu mota hori urte anitzetan gauzatu izanak berarekin ekar ditzake desbiderapen finantzarioak, positiboak nahiz negatiboak, ekitaldi bakoitzean, baldin eta obligazio onartuak eta likidatutako eskubideak bat ez badatoz ekitaldien arteko portzentaje banaketan.

Ondorio horietarako, ondokoen arteko diferentzia izango da finantzaketaren desbiderapena:

- ⇒ Gastuaren hasieratik (nahiz ekitaldi honetan hasia izan, naiz aurrekoetan) abenduaren 31ra arte (aurrekontuaren likidazio eguna) onartutako eskubideak, gastu hori gauzatzeari lotuak.
- ⇒ Eta denbora tarte berean gauzatutako gastuaren zatiaren arabera onartu beharko ziren eskubideak, baldin eta sarreraren exekuzioa gastuaren exekuzioarekin batera egin bazen.

Gainera, finantzaketa lotua duen gastuaren exekuzioa aurreko ekitaldi batean has litekeen neurrian, bi hauen artean bereizi beharko da:

- Desbiderapen finantzario metatuak, hau da, lehenago adierazitakoari jarraiki kalkulaturakoak.
- Aurtengo ekitaldiari egotz dakizkiokeen desbiderapen finantzarioak, aurrekoaren antzera kalkulatuak baina aurtengo ekitaldian likidatutako gastu eta sarrerak soilik kontuan hartuta.

Zentzu horretan, aurtengo ekitaldiko aurrekontuan jasotzen diren finantzaketa lotuko gastuak eta, halaber, horren exekuziotik datozen desbiderapen finantzarioak ondoko hauek dira:

FINANTZAKETA LOTUA DUEN GASTUA		DESBIDERAPEN FINANTZARIOAK	
PARTIDA	AZALPENA	METATUTAKOAK	EKIT.EGOZTEKOA
GUZTIRA			



Sarrera-kontzeptuen arabera, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapen finantzario metatuak honela zehaztuta daude:

SARREREN KONTZEPTUA	AZALPENA	DESBIDERAPEN METATU POSITIBOAK	DESBIDERAPEN METATU NEGATIBOAK	EKITALDIARI EGOZTEKO DESBIDERAP.
DESBIDERATZEAK, GUZTIRA				

9.- SALDO KOBRAKITZEN ESTIMAZIOA

Hurrengo taulan jasoko da kobragaitzak edo kobraezinak diren eskubideen estimazioa.

KONTZEPTUA	KOBR. GABEKO HASIER. SALDOA	SALDO BERMATUA	KOBRAKITZA %-TAN.	KOBRAKITZA EUROTAN
URTEBETETIK GORAKO ZORRAK	0,00	0,00	0,00	0,00
4. kap.: transferentzia arruntak	0,00	0,00	0,00	0,00
7. kap.: kapital transferentziak	0,00	0,00	0,00	0,00
URTEBETETIK BEHERAKO ZORRAK	35.750,00	0,00	0,00	0,00
1. kap.: zuzeneko zergak	198,13	0,00	0,00	0,00
2. kap.: zeharkako zergak	0,00	0,00	0,00	0,00
3. kap.: tasak eta bestelako sarrerak	1.309,36	0,00	0,00	0,00
4. kap.: transferentzia arruntak	3.563,59	0,00	0,00	0,00
5. kap.: ondare sarrerak	0,00	0,00	0,00	0,00
6. kap.: ond. erreal. best.tzeak eta hirig.ko jard.en sarrerak	1.482,40	0,00	0,00	0,00
7. kap.: kapital transferentziak	29.196,52	0,00	0,00	0,00
8. kap.: aktibo finantzarioak	0,00	0,00	0,00	0,00
9. kap.: pasibo finantzarioak	0,00	0,00	0,00	0,00
GUZTIRA	35.750,00	0,00	0,00	0,00

10.- AURREKONTU EMAITZA

21/2003 Foru Arauak 48. artikuluan arautu du aurrekontu emaitza.

Aurrekontu emaitza magnitude ekonomikoa da, eta hauxe adierazi nahi du: ekitaldian onartutako eskubideak noraino izan diren nahikoak finantzatu behar ziren obligazioei aurre egiteko (eta, halakorik balitz, itxitako ekitaldietako zenbait eragiketa aurtengo ekitaldian deuseztatzeak sortutako defizitari aurre egiteko).



AURREKONTU EMAITZA		
Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:		18.289,05
• (+) Eskubide onartuak:	313.345,49	
• (-) Obligazio onartuak:	295.056,44	
Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitzak:		937,75
• (+) Itxitako ekitaldietan ordaindu gabeko obligazioen bajak:	937,75	
• (-) Itxitako ekitaldietan kobratu gabeko eskubideen bajak:	0,00	
AURREKONTU EMAITZA (doitu aurretik):		19.226,80
Doiketak, aurrekontu-emaitzan:		41.698,55
• (+) Diruzaintzako gerakinaren bitartez finantzatutako obligazioak:	41.698,55	
• (-) Ekitaldiari egotzitako desbiderapen finantzarioak:	0,00	
AURREKONTU EMAITZA DOITUA		60.925,35

11.- DIRUZAINZAKO GERAKINA

21/2003 Foru Arauak 48. artikuluan arautu du diruzaintzako gerakina.

Diruzaintzako gerakina magnitude finantzarioa da, eta entitateak epe laburrera izango duen likideziaren soberakina adierazten du. Bestela esanda: diruzaintzako gerakina ondoko egoera gertatuko balitz entitateak izango lukeen dirutzak osatzen du: epe laburrera kobratu gabeko eskubideen epemuga amaitu eta abenduaren 31n kobratzea, eta bilketa horren emaitzarekin eta data horretako fondo likidoekin epe laburrera ordaindu gabeko obligazioei aurre egitea, horien epemuga ere abenduaren 31n amaituko litzatekeela pentsatuz.

Bi dira diruzaintzako gerakinaren osagaiak:

- Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintzako gerakina.
- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina.

Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintzako gerakina, hain zuzen ere, finantzaketa lotua duten gastuetan metatutako desbiderapen finantzario positiboak batuz osatzen da. Desbiderapen horiek ekitaldiaren amaieran kalkulatzen dira erakunde finantzatzaile bakoitzarentzat (8. apartatuan zehaztuta daude).

Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintzako gerakina bere sorreran datzan gastu bera finantzatzeko erabili beharko da, edota, halakorik balitz, proiektatu den gastua osorik edo zati batean burutu ezin izanak nahiz burutzeari uko egin izanak sortutako obligazioak estaltzeko.



Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina kalkulatzeko, finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintzako gerakina kenduko zaio diruzaintzako gerakin osoari.

DIRUZAINZAKO GERAKINA	
DIRUZAINZAKO IZAKIN LIKIDOAK:	299.144,01
KOBRATU GABEKO SALDOAK:	35.786,90
· Sarrerren aurrekontuko zordunak: urteko ekitaldia:	35.750,00
· Sarrerren aurrekontuko zordunak: itxitako ekitaldiak:	0,00
· Aurrekontuz kanpoko zordunak:	36,90
· - Aplikatu gabeko kobrantzak:	0,00
ORDAINDU GABEKO SALDOAK:	9.894,26
· Gastuen aurrekontuko hartzekodunak: urteko ekitaldia:	4.792,23
· Gastuen aurrekontuko hartzekodunak: itxitako ekitaldiak:	0,00
· Sarrerren aurrekontuko hartzekodunak:	0,00
· Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	5.102,03
· - Aplikatu gabeko ordainketak:	0,00
DIRUZAINZAKO GERAKIN GORDINA	325.036,65
SALDO KOBRAGAITZAK	0,00
DIRUZAINZAKO GERAKIN LIKIDOA	325.036,65
FINANTZAKETA LOTUA DUTEN GASTUETARAKO DIRUZAINZAKO GERAKINA	0,00
GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZAKO GERAKINA	325.036,65

Beraz, aurtengo ekitaldia likidatzean diruzaintzako gerakin likidua 325.036,65 eurokoa izan da; horietatik:

⇒ 0,00 euro, hau da, finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintzako gerakina, bera sortu duten gastuen kreditu-txertaketa finantzatzeko erabili ahal izango da.

⇒ 325.036,65 euro, hau da, gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina, nahi denerako erabili ahal izango da, baita ondorengo ekitaldiko kreditu-aldaketak (nahiz finantzaketa lotua duten gastuenak nahiz gastu orokorrenak) finantzatzeko bada ere.



12.- EMAITZAK EGIAZTATZEA

KONTZEPTUA	EURO
Aurreko ekitaldiko diruzaintzako gerakin gordina	305.247,57
+ Sarrerak itzultzeagatik sortutako hartzekodunak, 2014-12-31n	562,28
+ Aurtengo ekitaldiko aurrekontu-emaiza (doitu aurretik)	19.226,80
- Sarrerak itzultzeagatik sortutako hartzekodunak, 2015-12-31n	0,00
Aurtengo ekitaldiko diruzaintzako gerakin gordina	325.036,65

13.- KREDITU GERAKINAK

Kreditu gerakinak, hain zuzen, behin betiko kredituei horien kargura onartutako obligazioak kenduz kalkulatzen dira.

21/2003 Foru Arauak 44.1 artikuluan agintzen duenez, ekitaldian sortutako obligazioei aurre egiteko beharrezkoak ez diren aurrekontuko ordainketa-kredituak (hau da, kreditu gerakinak) zuzenbide osoz balio gabetuko dira abenduaren 31n, ondorengo ekitaldiko aurrekontuari txertatu behar zaizkionean izan ezik.

Goian aipatutako Foru Arauak 32.1 artikuluan jaso du zein kasutan izango dugun kreditu gerakin horiek txertatzeko aukera. Hona hemen zerrenda:

- Transferitutako kredituak eta kreditu gehigarriak, baldin eta bi kasuetan ekitaldiko azken hiru hilabetean onartu badira.
- Erabilitako gastuetarako kredituak (D fasea), baldin arrazoi justifikatua dela eta obligazioa ezin izan bada onartu.
- Gaitutako kredituak eta lotutako sarreraren menpeko beste kreditu batzuk.
- Kapital eragiketarako kredituak.

Ez-erabilgarritzat hartutako kredituak inola ere ezingo dira txertatu. Aurrekontuan txertatutako kredituek finantzatutako obligazioak, onartzekotan, txertaketaren ekitaldi berean onartu beharko dira; kreditu horiek, beraz, ezingo dira hurrengo urteko aurrekontuan berriro txertatu, lotutako sarrerak dituzten kapital eragiketarako kredituak izan ezik.

Horren arabera, ondoko taulan zehaztuta daude aurtengo ekitaldiaren likidazioaren emaitza diren eta txerta daitezkeen kreditu gerakinak. Txertaketa zuzitzeko, aurreko lau kasuetatik zeinetan aurkitzen diren ere zehazten da bertan. Nolanahi ere, kredituak txertatzea



aukerakoa da eta, egitekotan, ekainaren 30a baino lehen onartu beharreko kreditu aldaketarako espediente baten (edo batzuen) bitartez egin beharko da.

PARTIDA	AZALPENA	GERAKINEN ZENBATEKOA	EGOERA				
			a	b	c	d	e
1 0000.601.933.00.01 2015	ABALI GOENENKO ORDAINKETA	1.311,56				X	
1 0000.601.920.00.02 2015	web orrialdearen diseinua	1.896,00				X	
1 0000.601.933.00.03 2015	BIODIBERTSITATEA, BASOETAKO LANAK	381,81				X	
1 0000.722.943.00.01 2015	BESTE ENTITATEEI: MENDI NEKAZAR. KUOTA	656,48				X	
1 0000.781.333.00.01 2015	LANDAREAK	572,00				X	
TXERTA DAITEZKEEN KREDITUEN GUZTIZKOA		4.817,85					
TXERTATU EZIN DIREN KREDITUEN GUZTIZKOA		12.519,11					
KREDITU GERAKINEN GUZTIZKOA		17.336,96					

14.- ONDORIOAK

Baliarrainen , 2016.(e)ko apirilaren 12a (a)

Kontuhartzailea

TXOSTENA

AURREKONTU EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK ETA GASTU ARAUA BETETZEARI BURUZKOA

ARAUDI APLIKAGARRIA:

- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.
- 1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.
- Diputatuen Kontseiluaren akordioa, 2014ko azaroaren 18koa, Jarraibidea onartzen duena finantza tutoretzaren eskumena garatzeko Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan.

AZTERTUTAKO TRAMITEA: 2015 urteko likidazioa

FORU ARAUAREN 1.2.a) ARTIKULUKO ENTITATEAK (administrazio izaera dutenak)



1- ENTITATE ZERRENDA:

BALIARRAIN

2- HELBURUAK BETETZEARI BURUZKO EGIAZTAPENA

Aurrekontuen egonkortasuna

2016eko aurrekontuaren likidazio espedientea kontuan hartuta, toki entitate honek 37.053,43 euroko superabita du, SEC Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarraren arabera. Ondorio horretarako, ez denez aurreikusten ondorengo doiketarik beharko duen eragiketa adierazgarririk, kalkulu hori 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoko sarreraren eta 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoko gastuen arteko diferentziarekin parekatu da, goian zerrendatutako entitateen kontuak bateratuta.

2015rako ezarritako helburua defizita zero izatea da.

Hori dela eta, kreditu aldaketaren espedientea kontuan hartuta, toki entitate honek bete egiten du aurrekontu egonkortasunaren 2015rako helburua.

ERAGIKETA :

Sarrerak 1-7	313.345,49
Gastuak 1-7.....	276.292,06

Finantzen iraunkortasuna

2015eko abenduaren 31n, goian zerrendatutako entitateen zor bizia, guztira, 2014an likidatutako sarrera arrunten % 0,09 izango dela aurreikusten da. Kalkulua egiteko, 2014ko abenduaren 31ko zor biziaren zenbatekotik abiatu gara, indarrean ziren eragiketa guztiengatik, abaletatik eratorritako arriskua barne; emaitzari gehitu zaizkio hitzartu diren eta erabili gabe dauden eragiketak eta 2015ko aurreikusitakoak, eta kendu zaizkio 2015rako aurreikusitako amortizazioak. Zor biziaren zenbatekoan ez dira sartu UFFFarengatik itzuli gabe gelditzen diren saldoak.

2015rako ezarritako helburua magnitude hori % 80,00 baino handiagoa ez izatea da.

Hori dela eta, likidazio espedientea kontuan hartuta, toki entitate honek bete egiten du finantza iraunkortasunaren 2015rako helburua. $(23.579,61 \text{ € zorra} / 246.792,90 = 0,09$

ERAGIKETA :

2014-12-31ean zorra	42.343,99
---------------------------	-----------



2015 urtean aurreikusten den amortizazioa.....18.764,38
2015 urteko aurrelikidazioaren eskubideak 1-5 biak barne..246.792,90

Gastuaren araua

2014ko eta 2015eko ekitaldien artean, gastu konputagarriaren bariazioa % -25,70 da.

Aurreko kalkulua egiteko, goian zerrendatutako entitateen datu bateratuak erabili dira, ondoko taulan xehatzen den moduan:

GASTU KONPUTAGARRIAREN BARIAZIOA		
a1	2014ko gastu ez finantzarioa (kap:1etik 7ra)	291.505,75
a2	SEC doiketak ^[1]	0,00
a3	2014ko interesak	258,09
a4	Finantzaketa lotua duen gastua 2015an	38.260,35
a=a1+a2-a3-a4	2014ko gastu konputagarria	252.987,31
b1	2015eko gastu ez finantzarioa (kap:1etik 7ra)	276.292,06
b2	SEC doiketak ^[2]	0,00
b3	2015eko interesak	80,29
b4	Finantzaketa lotua duen gastua 2016an	88.261,50
b5	Araudian eta kudeaketan egindako aldaketen eragina	0,00
b=b1+b2-b3-b4-b5	2015ko gastu konputagarria	187.950,27
c=(b/a-1)*100	Gastu konputagarriaren bariazioa (%tan)	-25,70

2015rako ezarritako helburua gastu konputagarriaren bariazioa % 1,70 baino handiagoa ez izatea da.

Hori dela eta, likidazioaren espedientea kontuan hartuta, toki entitate honek bete egiten du 2015rako gastuaren araua.

3- ONDORIOAK

Baliarrainen, 2016eko apirilaren 12an.
Idazkari kontu-hartzailea

Mahaikideek AHOBATEZ ERABAKI DUTE :

Lehena.- 2015ekitaldiko aurrekontuaren likidazio eta kontu orokorrari onarpena ematea .

^[1] Doiketen zenbatekoa adierazgarria den kasuan bakarrik.

^[2] Doiketen zenbatekoa adierazgarria den kasuan bakarrik.



Bigarrena.-Kontu Orokorra hamaboste egunetarako jendaurrean jartzea , dagokiona irizpideak eta alegazioak tarteratzeko eta alegaziorik ezean , behin betikotzat onartuta geratuko da , erabaki berririk beharrik gabe .

5.-JOSU ALBISUREN ALEGAZIOA AZTERTU ETA DAGOKIONA ERABAKITZEA.

Josu Albisu jaunak, 2016eko otsailaren 16eko Osoko Bilkuran hartutako erabakiaren berri jaso ostean, zera adierazten du.

Bere etxeko berogailua eta ur beroa, egurraren bidez bakarrik hornitzen duela eta egurra gordetzeko lekuan , berau lehertzeko aukera gutxi duela . Horregatik , bere partzelan estalpe bat desmontablea egin bahi duela, batz bestea 10 m2 etakoa 1,80 m. luzera duena. Estalpe hori udalak eskatzen duenean , kenduko duela eta baimena prekarioan ematea eskatzen du .

Mahaikideen aldetik , honako iritziak eman dira .

- .-Josu Albisuk eskaera zuzentasunez egin zuela .
- .-Josu Albisuk estalpea egitearekin, arau subsidiarioek ematen dien eraikigarritasuna gaintitzeaz gain, partzelan inolako eraikin edo desmontablerik ezin dela jarri esaten duen araua hausten duela.
- .-Eta Udal kideen aldetik, hiriguneko beste etxe batzuek duten bezala, teilatuaren hegaldaren azpian apalak jarri eta bertan egurra gordetzeko aukera eskaintzea.

Eta ondorioz mahaikideek ERABAKI DUTE.

Josu Albisuk egindako baimen eskaera ez onartzea .

6.-JUAN ZUBELDIAREN BAIMEN ESKAERA ONARTZEA HALA BALEGOKIO.

Juan Zubeldiak ,Roman enea etxearen behe solairuan , lehen komona zegoen lekuan , berriro ere komona eta dutxa jartzeko berrikuntzak egin nahi dituela . Horretarako , gaur eguneko egoera eta obra egin ondoren



geratuko den era adierazten duen krokisa aurkeztu ditu aurrekontuarekin batera .Lanaren aurrekontua , 10.450,40 eurotakoa da.

Mahaikideek ERABAKI DUTE .

- 1.-Eskatutako obra burutzeko baimena onartzea.
- 2.-Aurkeztutako aurrekontuaren %0,625 ordaintzea Eraikuntza eta Zerga kontzeptuan , hau da 65,31 euro.
- 3.-Eskatzaileari erabakiaren berri ematea .

7.-ALKATEAREN DEKRETUEN BERRI EMATEA.

Alkateak honako ebazpenak eman dituela jakitera ematen da :
2016-03. herri txikietako futbot taldeei pilotalekua erabiltzeko
2016-04. pilotalekuaren erabilera
2016-05.eskola txikitako postua jartzeko baimena
Mahaikideek jakinaren gainean geratu ziren .

8.-2016KO IBILGAILUEN HASERAKO ERROLDA ONARTZEA.

2016. urteko ibilgailuen erroldak agertu dira eta aztertu ondoren erabaki da:

- 1.-2016 urteko ibilgailuaren erroldari hasera onarpena ematea .
- 2.-Jendaurrean jartzea, Gipuzkoako Ogasun Lokalak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 14.1 artikuluan agindutakoa betetzearren. Era berean, Gipuzkoako Herrialdeko Zergabilketa Erregelamendua onesten duen apirilaren 9ko 27/1991 Foru Dekretuaren 78. Artikuluan galdatzen den borondatezko zergabilketaren epea eta modua adierazten dira. Hori guztia ondoko arau hauen arabera:

a) Ikusgai dagoen lekua: Udaletxeko bulegoetan.

b) Aztertze epea: Hilabetea, datatik datara kontatuta, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo lanegunetik aurrera.



c) *Ezadostasuna adierazteko epea:* Hilabetea, b) atalean adierazitako eran aginduzko birjapen errekurtsua jarrita.

d) *Errekurtsua jartzen zaion organoa:* Gobernu Batzordea.

e) *Erreklamazioak aurkezteko lekua:* Udaletxeko Sarrera Erregistroa, bulego orduetan.

f) *Errekurtsuak jartzearen eraginak:* Aipatutako Foru Arauaren 14.2 artikulua xedatzen dituenak.

g) *Zergabilketa epea:* 2016ko uztailaren 30 arte.

h) *Ordainketa lekua:* Kutxa eta Udal bulegoan.

Aipatutako zergabilketa epearen barruan zor horiek ordaintzen ez badira, prozedura exekutiboaren bitartez galdutako direla eta premiamenduzko errenergia, berandutza interesak eta, bidezko balitz, sor daitezken kostuak gehituko direla jakinarazten da.

3.-Eta jendaurreko epea iragan eta alegaziorik tarteratu ezean , behin betikotzat onartuta ematea , erabaki berririk beharrik gabe .

9.-HILEKO ORDAINKETEN ZERRENDA ONARTZEA.

Ondoren aipatzen diren ordainketak onartu dira :

TITULARRA	KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
BABESA SUZAI	SUTE SISTEMAN KONONKETA	509,41 €
JESSICA GURRUTXAGA	HAURRESKOLAKO MUGIKORRAREN BIRKARGA	20,00 €
MIREN GARMENDIA	GASOLINA	29,55 €
GARBILUR	HAURTZAINDEGIKO LANAK	169,40 €
ILARKI	MARTXOKO E.E.L. ZERBITZUA	1.229,44 €
ILARKI	2015EKO ABENDUKO E.E.L. ZERBITZUA	1.426,95 €
ILARKI	URTARRILEKO E.E.L. ZERBITZUA	1.194,15 €
MONTTE	EGUTEGIETARAKO FOTOGRAFI PAPERAK	25,03 €
COMERCIAL BULEGOAK	HIRUHILEKO KOPIEN FAKTURAZIOA	179,29 €
ICE PROFESIONAL	GARBIGAILUAK	19,75 €
TOLOMENDI	IKT MARTXOA	152,50 €



TOLOMENDI	IKT OTSAILA	152,50 €
LARRAITZ AGIRRE	2015EKO KILOMETRO GASTUAK	39,28 €
JC INFORMATICA	KANPOKO DISKO GOGORRA	108,90 €
EXCAVACIONES SOROA	AZPI-SALETXEKO BIDEAN LUBIZIAK KENTZEA 2 TXANDATAN	1.544,20 €
	GUZTIRA	6.800,35 €

10.-GALDERAK ETA ESKAERAK:

BAT.- Maiatzaren 1ean , uemaren 25 urteurrena dela eta Aizarnazabalen jai eguna ospatu dela jakitera eman du alkatea. Bere aldetik joan ezina agertu duenez , edonork joan nahi badu aukera duela aditzera eman du.

BI.-GURASO ELKARTEAK AURKEZTU DITUEN 2014 ETA 2015 EKITALDIETAKO TXOSTENAK AZTERTU ETA BERE INGURUAN DAGOKIONA ERABAKI .

Baliarraingo zartagi guraso elkarteak, 2014 eta 2015 urteei dagokien txostenak aurkeztu dira, non, ekintza, jardunaldi eta aisialdirako oneak jasotzen diren.

Txostenekin batera, urte bakoitzeko gastu , sarrera eta gerakina ere agertzen dituzte .

2014 urteko sarera eta gastuen zerrendak honako emaitza ematen du :

GASTUAK3.050,26 €

Eta , SARRERAK..... 2.802,85€

2014 urteko kontuen emaitza -247,41 euro izanik eta aurreko urtetik datorren gerakina batuta, hau da , 2.538,37€, 2014-12-31ean dagoen saldoa , 2.290,96 € dira .

2015 urteko sarera eta gastuen zerrendak honako emaitza ematen du :

GASTUAK2.706,78 €

Eta , SARRERAK..... 3.721,61 €



2015 urteko kontuen emaitza eta 1014,83 euro izanik eta aurreko urtetik datorren gerakina batuta , 3.305,79 eurotako gerakina geratzen da , 2015eko abenduaren 31ean .

Mahaikideek aztertu ondoren , honako adierazpenak egin dituzte :

- 1.-Txostenean ondo jasotzen dira urtean zehar egindako ekintzak , eta berauen balioa , ere .
- 2.-Udalak , lagungarri ikusten dituen ekintzak 2014 ekitaldiari dagokionez, aurkeztu diren ekintzetatik hauek direla :

Ekintza	Kopurua
Izar Arregiren hitzaldia	240,00
Barandiaran museora irteera	12,00
Ikurriñak	28,00
Mazapan tailerra	17,00
Sukaldarizta tailerra eta postalak	31,82
Zirko tailerra –Ixtalok	120,00

GUZTIRA 448,82€

- 3.- Udalak , lagungarri ikusten dituen ekintzak 2014 ekitaldiari dagokionez, aurkeztu diren ekintzetatik hauek direla :

Ekintza	Kopurua
Errealeko partidua	200,00
Jaiak , tonbolarako Aquariumerako sarrerak	81,00
Jaiak,tonbolarako sagardoa	15,00
Olentzero apaindu eta ondorengo txokolatea	16,00

GUZTIRA 312,00€

Beraz, mahaikidek, aho batez, erabaki dute:

- 1.-Guraso elkarteari, 2014 ekitaldian egindako ekintzei laguntzeko, 448,82 eurotako laguntza ematea.
- 2.- Guraso elkarteari 2015 ekitaldian egindako ekintzei laguntzeko 312,00 eurotako laguntza ematea.
- 3.-Eta erabakiaren berri guraso elkarteko ordezkariiei jakinaraztea.



BALIARRAINGO UDALA
(GIPUZKOA)

Eta besterik ezean bilera amaitutzat eman zuen alkateak , 20,31 etan

Alkateak

Idazkariak